



Arartekoaren ebazpena, abuztuaren 4koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari gomendatzen zaio eraginik gabe utz dezala forma akats larriengatik behar ez bezala eskuratutako kopuruak itzuli beharragatik sortutako zorra.

Aurrekariak

1. Erreklamatzaila Etxebizitza Prestazio Osagarri baten hartzaile da. Prestazio hori 2010eko azaroaren 24ko ebazpen baten bitartez eten zitzaion, eskatu zitzaion unean alokairua ordaindu izanaren agiriak ez aurkezteagatik. Etendura urtarrilaren 1etik aurrerakoa izan zen, eta, beraz, behar ez bezala eskuratutako kopuruak itzuli beharragatik 3.200 €-ko zorra sortu zen.
2. Erreklamatzailaren kearen arrazoa Arabako Foru Aldundiak jakinarazi ez izana da Informazioko eta Gizarte Prestazioak Izapidetzeko Udal Bulegoan (San Antonio kaleko 10.ean) alokairuaren ordainagiriak aurkeztu behar zituela. Prestazioa ematearen ebazpena jakinarazten dion idazkian adierazitako jarraibideen ondotik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo zuen aipatutako agiriak entregatzeko. Han jakinarazi zioten izapidetzeko moduan aldaketak egon zirela, eta ordainagiri horiek beste toki batean entregatu beharko zirela, hain zuzen ere une egokian jakinaraziko zitzaion toki batean. Jakinarazpen horren ordeztu, azaroaren 24ko ebazpen idazkia eskuratu zuen. Bertan, jakinarazten zitzaion prestazioa eten egingo zitzaiola eta 3.200 €-ko zorra sortu zela.
3. Gai horri buruzko informazio eskaera egin eta gero, Arabako Foru Aldunditik zera jakinarazi zitzaigun: *“es en la Resolución de reconocimiento de dicha prestación donde se recoge la obligación de presentar dichos documentos, que se pone en conocimiento de los titulares en los siguientes términos: (...) ‘Asimismo, se le comunica la obligación, de presentar semestralmente los justificantes de los gastos de alquiler de la vivienda o alojamiento habitual, ante la Oficina de Información y Tramitación de Prestaciones Sociales sita en la calle San Antonio, 10’”. No obstante, tras comprobar la documentación aportada por la reclamante, en la que se incluye el escrito de la resolución, en éste se lee lo siguiente: “Los justificantes de los gastos de alquiler de la vivienda o alojamiento habitual deberá Vd. presentarlos semestralmente ante el Servicio Social de Base de su municipio”.*
4. Bestalde, Aldundiari galdetu egin zitzaion behar ez bezala kobratutako kopuruengatik espediente berri bat izapidetzearen gaiari buruz, hain zuzen ere etxebizitza prestazio osagarriaren 2/2010 Dekretuaren IV. Kapituluko artikulua



betez. Horren ondotik, zera adierazi zitzaigun: *“Con fecha 24 de noviembre 2010 y tal como refrenda la normativa -artículo 33 del Decreto 2/2010 de 12 de enero de desarrollo de la prestación complementaria de Vivienda- la Diputación Foral realiza la correspondiente resolución de suspensión motivada. En la misma se notifica la deuda generada y la forma de compensación de la misma, tal y como viene establecido en el artículo 3.c del citado Decreto”*.

5. 2011ko urtarrilaren 24an, erreklamatzailleak prestazioari berriro ekiteko eskatu zuen eta, betekizunak betetzen zituenez, berriro ere onartu egin zitzaion urtarrilaren 25etik aurrera.

Gogoetak

1. Erreklamatzailleak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, EPO ematen dion ebazpenean adierazi egiten da ordainagiriak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan entregatu beharko direla. Lehen ere horixe egiten zuen GLL kontzeptuagatik ordaintzen zitzaizkion alokairu gastuak justifikatzeko, hain zuzen ere 2/2010 Dekretua indarrean jarri baino lehen. Ordainagiriak entregatu beharra Dekretuaren 19.1 artikulua finkatzen du: *“Emate-ebazpenari dagokionez, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren titularrak sei hilean behin ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu-gastuen frogagiriak udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuari aurkeztu beharra ezarriko da”*.

San Antonio kaleko bulegoan alokairuaren ordainagiriak entregatzeko beharra ez zitzaion behar bezala jakinarazi, beraz, Arabako Foru Aldundiak uste izan du erreklamatzailleak prestazioa eteteko arrazoi bat betetzen duela (Dekretuaren 24.1.a artikulua), nahiz eta EPO ematen dion ebazpenak zein araudiak berak ezarritako aurreikuspenei jarraiki aurkeztu zituen ordainagiri guztiak. Beste era batera esanda, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan ordainagiriak behar bezala aurkeztu arren, ordainagiri horiek ez zizkioten onartu, izan ere, beste toki batean entregatu beharko zituela esan zitzaion eta toki hori garaiz kanpo jakinarazi zitzaion, hain zuzen ere, behin etendura prozedura hasita eta kasuan kasuko alegazioak aurkezteko aukerarik eduki gabe.

Horrekin batera, entzute izapiderik ere ez zen egin, eta hala egin izan balitz, erreklamatzailleak alokairuen ordainagiriak aurkeztu zitzakeen, etendura saihestuz horrela.

2. Bestalde, 2/2010 Dekretuaren IV. kapituluko xedapenak betez, behar ez bezala kobratutako kopuruengatik espediente bat izapidetzeko bideratutako izapideei buruzko informazio eskaerari erantzunez, onartu egiten da zorraren sorrera eta prestazioaren etendura ebazpen berdinen bitartez egiten dela, Dekretuaren 3.c(sic) artikuluari helduz (prestazioa ezin bahitzeari buruzkoa, 3.3.c: *ez da konpentsatzerik edo deskontatzerik egongo, gizarte-arloko ezein prestazio*



ekonomiko publikorengatik jaso behar ez zirela jasotako prestazioak itzultzeko izan ezik, prestazioaren jatorria edozein izanda ere, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren kontzeptuengatik bizikidetzaren unitateari dagozkion prestazioen guztizko zenbatekoaren % 30eko gehieneko mugaraino.

Ondorioz, uste dugu Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/92 Legearen 62.1.e artikulua aplikatu beharko litzatekeela: "1. Erabat deusezak izango dira herri-administrazioen egintzak baldin eta (...)Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman badira.

3. Azkenik, prestazioari berriro ekiteari dagokionez, hura 2010eko urtarrilaren 25ean jarri zen martxan berriro ere, hain zuzen ere erreklamatzailak eskabidea aurkeztu zuen egunaren hurrengoan. 2/2010 Dekretuaren 27. artikulua, EPORi berriro ekiteari dagokionez, zera dio: "*Prestazioa eteteko arrazoiak amaitzen diren egunetik kontatzen hasita hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera sortuko da*".

Hala eta guztiz ere, prestazioari eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera ekiten zaio berriro, eta informazio eskaerari emandako erantzunean ez zitzaigun jakinarazi Aldundiak zein unetik aurrera uste duen etendura ekarri zuten arrazoiak bertan behera geratu direla. Hori, eta ez berriro ekitea, da berriro ekiteko data finkatzeko aintzat hartu behar den denbora erreferentzia.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

29/2011 GOMENDIOA, abuztuaren 4koa, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari egina

Aurrerantzean, laguntzari berriro ekiteko unea finkatzerakoan, etenduraren arrazoiak bertan behera noiz geratzen diren aintzat har dezan.

Etxebizitza Prestazio Osagarria etenda egon den bitartean, kopurua kobratzeko eskubidea eduki duela aitortzen da.

Behar ez bezala jasotako kopuruak itzuli behar izateagatik sortu den zorra eraginik gabe utzi dezan, eta Diru-sarreraren Berme Errenta gisa eskuratzen duen kopuruagatik deskontua aplikatuz konpentsatu zaion kopurua itzuli diezaiotela.